



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

BANDOA

Lesakako landa-bide publikoak erabiltzeko eta aprobetxatzeko ordenantzaren inguruko oharra.

2020ko maiatzaren 28ko udaleko osoko bilkuran aho batez onartutako *Lesakako landa-bide publikoak erabiltzeko eta aprobetxatzeko ordenantza*, mendi-bideen erabilpen egokia bermatzeko hainbat baldintza ezartzen ditu. Tartean, bide batzuk baimendutako ibilgailuek soilik erabili ahal dituztela edota eguraldi txarrarekin bideen erabilera mugatzen du.

Hori dela eta:

- Norbaitek beharrezko badu mendiko bide hauetan ibiltzea, Lesakako udaletxean baimen eskaria egin beharko du.
- Baimena, Lesakako bizilagunek eta beren ibilgailuak erabiltzeko beharra justifikatzen duten bertze pertsona batzuek eskatu ahal izanen dute, betiere ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
- Bertzetik jakinarazten da etxe edo baserrietarako bideak ez daudela mugatuta.

Lesakan, 2022eko maiatzaren 16a.

Alkatea,



Ladis Satrustegi Alzugaray